

LITERATURA. Saiakera arloan egitasmo bakarra aurkeztu da eta bekak eman gabe uztea erabaki du epaimahaiak

Sei idazle konprometitu

Joxean Agirre, Jon Alonso, Pablo Sastre, Felipe Juaristi, Igor Estankona eta Anjel Mari Errorentzat dira Jaka bekak

Juan Luis Zabala | **DONOSTIA**

Joxean Agirre eta Jon Alonso nobelagintzan, Igor Estankona eta Anjel Mari Erro poesia alorrean, eta Felipe Juaristi eta Pablo Sastre haur eta gazte literaturarenean dira Joseba Jaka Literatur Beken hirugarren deialdiko sarituak. Saiakera alorrean bekarik ez ematea erabaki du epaimahaiak. Marijose Irizar Euskalgintza Elkarlanean Fundazioko lehendakariarekin batera, epaimahaiako lau kide izan ziren atzo eguerdian Bilintx megadendan, epaimahaiak erabakitakoaren berri ematen: Joxe Azurmendi, Joxe Austin Arrieta, Koldo Izagirre eta Laura Mintegi. Lau idazle horietaz gain beste bat ere izan da epaimahaiako: Anjel Lertxundi.

Joxean Agirreraren nobela egitasmoak «konposizio konplexua baina hala ere ongi heldua eta orekatua» duela azaldu zuen Joxe Azurmendik, epaimahai osoaren izenean. «Alderdi literario, metaliterario, poliziako edo kuasi-poliziako eta psikologikoei elkar osatzen dute, eta gogoeta sozial eta humanoa ere bada, tartekaturik».

Narrazioaren eraikuntzaren aldetik ere, interesgarria deritza Joseba Jaka Literatur Beken epaimahaiak Agirreraren lanari.

Jon Alonsok bi pertsonaia pertsonaia bakar bat bihurtzeko asmoa du, Azurmendik atzo azaldu zuenez: «Euskal Herriko iragana eta oraina batuko ditu, eta euskara zaharra eta berriak». Horretaz gain, elementu historikoak eta polizialak ere izango ditu Alonsoren lanak.

Helduen probetxurako gazte literatura

«Geroak esango du haur eta gazte literaturaren arloan kokatzen ditugun obra batzuk ez ote diren izango gaztetxoek bezain helduen probetxurako», adierazi zuen Koldo Izagirrek haur eta gazte literaturaren arloko bekak jasoko dituzten bi lanen aurkezpenera egitean. «Azala osorik egin ez ezik gogortu samarra ere daukagunok ezusteko handiak hartzen ditugu aldian behin guretzat eginak ez diren obretara hurbiltzen garenean», esan zuen Izagirrek, eta liburu bat baino gehiago «apalez aldatu» egin behar izan duela. «Halako susmo bat hartu diegu aurten sail horretara aurkeztu diren zenbait egitasmori, eta ez bakarrik beka eman zaienei».



EDURNE KOCH
Igor Estankona, Joxean Agirre, Anjel Mari Erro eta Jon Alonso, atzo, Donostiako Bilintx megadendan.

Felipe Juaristiren egitasmoak, izenburutik hasita, «berrikuntza dakar planteamenduan», Izagirren iritziz, «aurrekari klasikoak azpiko gain jartzen baitu egileak: literatura loarazletzat hartu izan da maiz; hemen, aldiz, esnarazlea izatea da ipuingintzaren helburua, egitura praktikoa eta aldi berean pertinente batean oinarritua».

«Juaristik idatziko digun liburu ederra», horretaz gain, «fabula politiko» moduan ere irakurri ahal izango dela aurreratu zuen Izagirrek.

«Gai guztiz aktuala» eta «aurrekari gutxiakoa» da, Izagirrek esan zuenez, Pablo Sastrek bere lanerako hautatu duena: legez kanpoko etorkinena. «Ez du hori bizigarri bakarrik: bandera inarrosi gabe idatziz nahi du, erruki-

PARTE-HARTZEA

Aurreko ekitaldietan baino egitasmo gutxiago aurkeztu da: 40tik gora lehenean; 30etik gora bigarrean; 21 orain

rik gabe, abentura huts moduan. Ikuspegi hotz eta moralaz landu ditu guk irakurri ditugun laginak, eta, paradoxaz, gazteentzako idatziz ohi duen literatura pedagogizatuak lortzen ez duen hunkidura utzi digu barruan. Marginalitatearen ikuspuntutik kontatua eta egileak ongi menderatzen dituen lau kulturaren arteko tentsioan kokaturik, ohi ez bezalako planteamendua dakar Sastrek hizkeran eta perpausen osakeran».

Bi poeta gazte

Igor Estankonaren lagineko poema bat irakurritz ekin zion Joxe Austin Arrietak poesia arloko egitasmoen aurkezpenari. Estankonak aurkeztutako txostenean poemarioa gorpuzteko izango dituen zailtasunen inguruko kezka agertzen dituela esan zuen Arrietak, baina animatu egin zuen poeta: «Poema bakoitza ikatz zati bat da, eta barruan dauka diamantea, edota ostra bat da eta barruan dauka perla, eta, landuz gero —beste batzuetan ikatz puska hautsi egiten bada ere, edo perlaren oskola itxi— batzuetan lortzen da bila gabiltzana».

Anjel Mari Erroren egitas-

EGITASMO SARITUAK

NOBELA

Jon Alonso ('Satorren tratua')

Joxean Agirre ('Romain Garay zen bere izena')

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Felipe Juaristi ('Esnatu nahi ez zuen printzesa')

Pablo Sastre ('Herritar hilak')

POESIA

Igor Estankona (ez du izenbururik oraindik)

Anjel Mari Erro ('Carpe noctem')

SAIAKERA

Eman gabe geratu da.

AURKEZTUTAKO LANAK

Nobela: 9.

Haur eta gazte literatura: 9.

Poesia: 2.

Saiakera: 1.

DIRU KOPURUA (Beka bakoitzeko)

Nobela: 14.000 euro (2.330.000 pezeta / 93.200 libera).

Haur eta gazte literatura: 7.000 euro.

Poesia: 7.000 euro

Saiakera: 7.000 euro

moa «oso ausarta» da, Arrieta- ren iritziz. «Epigrama latindar klasikoaren *re-make* euskaldun oso bitxia» da aurkeztu duen egitasmoa. Bere poetika aurkitu arte, poesia klasikoaren magalean babestu nahi duela idatziz du Erro, beka deialdira aurkeztutako txostenean.

Erroren egitasmoak «eske- mak hautsi» egin zizkiola aitortu zuen Arrietak: «Gure garaian, ismorik ismo eta manifestuz manifestu, beti ibili izan gara aurreko poetika guztiak suntsitzen, eta orain gazte batek honelako gauzak esatea bitxia da, bitxia eta interesgarria».

Ausarta ez ezik, Erroren bidea are «anatemikoa» ere izan daitekeela esan zuen Arrietak. Eta arrisku batetik gordetzeko aholkua eman zion poeta gazteari: erudizioarenetik.

Saiakera alorrean eman gabe geratu dira bekak, eta Euskalgintza Elkarlanean Fundazioak ez du oraindik erabaki beka horiei zegokien diruarekin zer egingo duen.

Guztira, 21 egitasmo aurkeztu dira aurtengo deialdira. Aurreko ekitaldiekin konparatuz gero, gutxiago izan dira aurten aurkeztu direnak. Lehen ekitaldian 40tik gora egitasmo jaso ziren, eta bigarrean 30etik gora.